

Hitzaurrea

2013ko udan antolatu genuen Hizkuntzalari Euskaldunen I. Topaketa, bi urtez behin egiteko asmoarekin. *Egungo Ikerlerroak* deitura ezarri genion lehenengo topaketa hari. Hizkuntza aztergai zuten proiektuak edota tesi-lanak —abian zirenak zein amaitu berriak— jendaurrean plazaratzeko gune bat izan nahi zuen jardunaldiak.

2015ean, IkerGazte-ren lehen edizioarekin bat zetorrela-eta, II. Topaketari beste ikuspegi bat ematea pentsatu genuen, eta eleaniztasuna alderdi ezberdinetatik aztertzen zuen hitzaldi-sorta bat antolatu genuen: *Eleaniztasunak baditu hamaika aurpegi* izenburupean.

2017ko uztailean, Baionan, Hizkuntzalari Euskaldunen III. Topaketa egin zen UEUren udako ikastaroen barruan. Lehenengo topaketaren hariari helduta, hizkuntza ardatz duten jakintza-arlo guztietako euskal ikertzaileak biltzea eta beren lanak aurkeztea zen helburua. Hortik jardunaldiaren deitura: *Zer berri?*

Jardunaldi hau IKER Euskara eta euskal testuen ikerketa-zentroarekin elkarlanean antolatu zen.

Egun bateko jardun arrakastatsuan 20 hizkuntzalari-ikertzailek eman zuten beren lanen berri eta entzule moduan izena emandako lagunen galderak erantzun ahal izan zituzten bai eta euren iruzkinak zuzenean jaso ere. Euskaraz lantzen diren gai askoren berri izan genuen jardunaldian. Izan ere, Hizkuntza Zientziek askotariko alorrak biltzen dituzte, ikuspuntu askotatik eta helburu teoriko zein aplikatuekin hizkuntza aztertzen dutenak: hizkuntzalaritza orokorra, filologia, dialektologia, soziolinguistika, neurolinguistika, hizkuntzalaritza konputazionala, lexikografia, terminologia, itzulpengintza, glotodidaktika... Hizkuntzalariok arlo horietako ikergaiak aurkeztu zituzten topaketan.

Topaketako hizlarietatik bederatziri eskatu zitzaizen bertan aurkeztutakoa artikululu luzeago batean gara zezaten. Horiexek dituzue liburu honetan bildu ditugunak.

Amaitzeko, bilduma honen argitaratzaileok, eskerrak eman nahi dizkiegu topaketan parte hartu zuten hizlarietara, baita IXA taldeko hizkuntzalariei ere. Guztion laguntzaz antolatu genuen topaketa, eta guztiei esker osatu ahal izan dugu liburu hau ere.

Ruben Urizar, Euskal Herriko Unibertsitatea
Itziar Aduriz, Universitat de Barcelona

Hitzaldi gonbidatua

Kike Amonarriz Gorria

Egun on guztioi:

Ezer baino lehen eskerrak eman nahi dizkiot UEUko Hizkuntzalaritza Sailari Hizkuntzalari Euskaldunen III. Topaketa hauek zabaltzeko aukera eskaintzeagatik. Niretzat ohore handia da, ohorea eta erantzukizuna, Euskal Filologian lizentziatua izanagatik, mundu akademikotik urrun samar mugitu naizelako nire denboran. Ahaleginduko naiz, nolana ere, Topaketa hauetan entzungo dituzuen ekarpen interesgarrien sarrera gisa, hobeto ezagutzen dudan eremu soziolinguistikoaren talaiatik nire ekarpen txoa egiten.

Askotan aipatu dut eta aipatu dugu euskara eta euskaldunak bidegurutze batean gaudela. Ziklo aldaketa baten zantzuak sumatzen direla eta hurrengo urteak giltzarri suerta daitezkeela gure hizkuntza-komunitatearen etorkizunari dagokionez.

Baina hipotesi, iritzi eta hausnarketa makroen hodeietara igo baino lehen, lurra zapalduko dugu eta euskalgintzaren ibiltari nomada gisa, azken hilabete hauetan, han-hemenka, ezagutu eta partekatu ditudan bizi-esperientzia berri edo berri-antzeko batzuk kontatu nahi nizkizueke:

- Joan den ostiralean, Jatorrin Elkartearen eskutik, ikasketak gainditu dituzten jatorri marokiarreko hainbat gazte gipuzkoar omendu genituen Donostiako Filosofia Fakultatean ekitaldi eder batean: Segurako Anisa, Tolosako Oumaima, Bergarako Ousama... Denekin natural-natural egin nuen euskaraz, duela gutxi Euskal Herriratutako batekin izan ezik.
- Ekainaren 15ean Zarautzen eta 16an Otxandion, herritarrak aktibatzea helburu zuten bi hitzaldi ematea egokitu zitzaidan. Udalak hainbat herritarren babesarekin antolatutakoa bata, eta Korrikaren hasieraz arduratu zen taldearen eskutik bestea. Bietan aretoak jendez lepo —200 bat lagun batean eta 120 inguru bestean— eta amaieran Euskara Elkarte edo aktibazio-guneren bat sortzen hasteko izena emandakoak asko.
- Maiatzaren 12an Lasarte-Orian burutu zen Udaltop-en 200etik gora euskara-tekniariren aurrean Euskaltzaleen Topaguneak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak elkarlanean landutako «Euskarak 365 egun» egitasmoaren

aurkezpenean izan nintzen eta estonaturik eta uros irakurri nituen pantailan bertaratuena artean jasotako «Sentimenduen mapa»n gailendu ziren hitzak: itxaropentsu, ilusioa, beharrezkoa, aukera, elkarlana, gogoia, erronka... Nabarmen irakur zitezkeen 21 hitzen artean «espektante» zen mesfidantza adierazten zuen bakarra.

- Topalabe taldearen partaide eta *Berrikasi eta berrikusi* dokumentuaren egileetako bat izanik, txostenaren hainbat aurkezpen-ekitalditan hartu dut parte eta denetan jakin-min, espektazio eta adostasun handiak aurkitu ditugu.
- Horretaz gain, interes eta ilusio handiz parte hartu dut, edo gertutik jarraitu, mugarri berriak iruditzen zaizkidan beste hausnarketa eta ekarpen kualitatiboki garrantzitsu batzuetan: Euskararen Aholku Batzordearen *Eta hemendik aurrera zer?* agiria, Kontseiluak sustaturiko *Donostiako Protokoloa*, Euskal Herrian Euskarazen *Euskal Herri euskaldunari atea ireki*, edo Eusko Ikaskuntza 2018ko Batzar Nagusiari begira abian jarri duen *Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen* hausnarketa-prozesuan.
- Pettarrako gazteek antolaturiko maskaradaz gozatu nuen apirillean Gameraen. Etxez etxe gazte euskaldunak topatu ondoren eratu zuten taldea, eta bertan entzundako mezu asko euskararen aktibazioaren aldeko aldarri zuzena ziren.
- Eta nahi eta ezinetik atera eta urrats bat aurrera eman nahi duten gazte eta ez hain gazteak aurkitu ditut Mendillorriko institutuan, Lartabaleko Kolegioan, Deustuko hizkuntza-eskolan edo Hernaniko etorkinen elkartearen.
- Eta horiekin batera, azken boladan, atentzioa eman didan hainbat argazki ikusi dut: euskalgintza eta erakundeak elkarrekin Korrika Santiago zubian; Egia, Agurain, Lasarte-Oria, Zuia eta beste hainbat herritarrek aktibazio molde berriak abiaraziz; hiru administrazioetako ordezkariak euskararen aldeko hitzarmena sinatzen, UEMA instituzio gisa argazki ofizialetan; 44 udalerrri nafar eremu linguistikoz aldatzen, Aroa Arrizubieta gasteiztar bertsolaria eskolarteko txapela janzten, etab.

Aipatutako gertaera, egitasmo edo bizipen hauek guztiek badute berritik eta badute baikorretik. Ez gaude geunden lekuan.

Argiaren aurkiak, ordea, badu ilunaren ifrentzua. Hori hobeto ezagutzen dugu: erabileran atzera egiten ari diren eskolak, herriak eta arnasmuneak, familia barruko erabileraren ez atzera ez aurrerakoa, gazteen lagunarteko erabileraren jaitsiera —batez ere Bizkaian—, eremu ez-formaletako erabilerak azken 5 urteotan izan duen geldialdia Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Nafarroan eta Iparraldean euskararen aurkako jarreretan izan den igoera, Euskara Planen aurkako helegiteak, Behatokiaren eta Elebideren txostenak... Askok luza daiteke zerrenda.

Bidegurutzearen eta ziklo-aldaketaren sintomak lirateke aipatutakoak. Baina lurretik altuera hartu eta begira dezagun egoera datuen eta bilakaera historikoaren talaiatik.

Hasteko, azken hamarkadetan ezagutu ditugun eta gure eguneroko bizimodua sakon astindu dituzten hainbat fenomeno global aipatu beharko genituzke.

Internetek, digitalizazioak eta telefonia-sistema berriek guztiz aldatu dituzte gure komunikazio-moduak, eta horrek eragin zuzena du bai komunikaziorako edo kontsumorako hizkuntzak hautatzean, bai hizkuntza bakoitzaren aldaerak erabiltzean —idazkera informala nagusitu da telefonia eta sare bidezko harreman pertsonaletan, esate baterako—, bai hizkuntzekiko eta hizkerekiko ikusmoldeetan. Zuzentasunak eta ortografiak prestigioa galdu dute, kode-nahasketak orokortu egin dira, eta ez dira jada, gurea bezalako hizkuntza gutxituak bakarrik ukitzen dituzten fenomenoak. Hizkuntzen arteko ukipena fenomeno unibertsala da gaur egun. Apirilaren 10ean, Language on the Move erakundeak bitxia egin zitzaidan albistea zekarren: mongoliar talde batek mongoliera-txinera hiztegiak erre zituen jendaurrean, txinerazko mailegu gehiegi onartzen zituelako. Albistea birtxiokatu eta bertan izandako Asier Gabikagojeazkoak adierazi zidan, Hohhoten, Mongolia Barruko hiriburuan kartel guztiak elebidunak zirela, baina inor gutxik hitz egiten zuela mongolieraz.

David Crystalek jada 2001. urtean *Language and the Internet* liburuan iragarri zuen bezala, Internet eta aurrerapen teknologikoak direla medio, munduak inoiz ezagutu duen iraultza linguistikorik handienaren atarian gaude.

Bestalde, globalizazioak, migrazio berriek, krisi ekonomikoak edo lanpostuen lekualdaketez ere, ondorio zuzenak dituzte hizkuntzekiko, eta gure kasuan, euskararekiko jarreretan: ez beti eta derrigor galerak direnak. Lisboa, esate baterako, euskaraz bisitatu daiteke bertako bus turistikoan, edo bada Berlinen, Lufhtansaren bezeroekiko harreman-sailean lan egiten duen gazte gipuzkoar bat, euskaraz zekien norbait eskatu zutelako. Eta gero eta gehiago dira Euskal Herrira etorri, eta oso arrazoi desberdinak direla medio, euskara ikasi duten gazte (eta ez horren gazte) atzerritarrak.

Baina hori esanda, bada mundu osoa ukitzen duen fenomeno global bat: ingelesaren mundializazioa. Esan genezake, ingelesa Euskal Herriko etxe guztietako hizkuntza dela gaur egun. Gutxi ala asko ulertu, gehiago ala gutxiago erabili edo kontsumitu, ez dago ingelesa entzun edo ikusten ez den etxerik gurean: musika, ikus-entzunezkoak, Internet, hitzak... Ekainaren 10eko *Le Monde* egunkariko Michel Guerrin erredakzio-buruak «My God, la francophonie!» artikulua idatzi zuen, salatuz, frantsesa nazioartean eragina galtzen ari dela eta edonon defendatzea atzerakoitzat hartzen dela. Halaxe zioen: «*Que chacun s'exprime dans sa langue là où c'est possible est un premier pas*» (alegia, «*lehen urratsa da norberak ahal duen lekuetan bere hizkuntza erabiltzea*»). Ez dut uste Guerrinek Lasarte-Oriako «Irten armairutik» egitasmoa ezagutuko duenik, baina aipatutako horrek «ahobizien» definizioa dirudi.

Mundu zabala hartzen duten fenomeno horiekin batera, badira, espezifikagoak, eragina, bereziki, gure mundu txiki honetan izan dutenak. Mundu txikia diot gure neurriak halakoak direlako: Baionatik Monteagudora 243 km, eta 2 ordu eta hiru ordu-laurdeneko bidaia; eta Muskizetik Santa Grazira 271 km eta 3 ordu eta hiru ordu-laurdenekoa, ViaMichelinen arabera. Eta honek ere badu eragina gai honetan.

Gurean, bereziki nabarmendu behar ditugu eremu soziopolitikoan gertatu diren funtsezko aldaketak: ETaren jarduera armatuaren amaiera, eragile politiko berrien agerpena edo aldaketa politikoa Nafarroan eta administrazio-egitura berria Iparraldean. Baina ezin ahantz ditzakegu gazte euskaldunen emigratioak, hirigintzak eta biztanleriaren mugikortasunak arnasmuneetan eragindako aldaketak, edo aukera eta galdera berriak sorrarazten dizkiguten migrazio-mugimendu berriak, feminismoaren indartzeak gure harreman-sistemetan, lan-munduan edo zaintza-ereduetan areagotuko dituen aldaketak... Horiek guztiek ondorio linguistikoak dituzte, onuragarriak izan daitezkeenak modu egokian kudeatuz gero, edo kaltegarriak, batez ere aintzat hartzen edo aurreikusten ez badira.

Eta hizkuntzaren alorrera etorrira, euskara bidegurutzean dagoela eta ziklo-aldaketa baten erdian gaudela defendatu izan badugu, ez gara oinarritu bakarrik orain arte aipaturiko aspektuetan. Gure hizkuntzaren eta hizkuntza-komunitatearen azken hamarkadetako bilakaerarekin zerikusi zuzena duten fenomenoak ere izan ditugu gozoan. Nabarmenetako batzuk aipatuko ditugu:

- Hizkuntzaren bilakaera neurtzeko erabili izan ditugun bi indize oinarrizkoenak irakaskuntzako ereduaren bilakaera eta haur eta gazteen ezagupen-portzentajeak izan dira. 2016ko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Iparraldeko hainbat eskualdetan bi portzentaje horiek % 80tik gorakoak dira. Aurrerapen-marjinak, beraz, oso txikiak ditugu aspektu horietan, eta horrek esan nahi du, hemendik aurrera, hobekuntzak erabileratik etorriko direla. Eta hor planteatzen zaigu bidegurutzea: lortzen baldin badugu erabileran urrats kuantitatiboak eta kualitatiboak ematea, normalizatuta dauden hizkuntzen egoerara hurbiltzeko bidea hartuko dugu; baina aitzitik, euskaraz dakien belaunaldi honen gehiengoak erabilerari bizkar ematen badio eta erdaraz egiten jarraitzen baldin badu, hurrengo belaunaldiak jasoko duen mezua izango da, gurasoek euskaraz jakin arren ez dutela erabiltzen, hau da, euskarak ez duela balio eta ez duela inolako garrantzirik, modu horretan, gure hizkuntza, Irlandako gaelikoaren bidean jarriz.
- Une honetan, gainera, masiboki D ereduaren eskolatutako lehen belaunaldia ari da kaleratzen, lan-mundura heltzen eta familiak osatzen. Edo beste era batera esanda: lehen lana lortzen, etxetik ateratzen edo lehen haurra izaten ari diren euskal herritar gehienak, lehen aldiz gure historian, euskaraz eskolatutakoak dira. Eta hona bidegurutzea: nola ari dira integratzen lanean, euskaraz ala erdaraz? Zein da beraien etxe berri horietako horma barruko hizkuntza nagusia? Nola hitz egingo dute etxean haurra jaio ondoren?

- Zenbait aspektutan aurrera egin dugu nabarmen, baina beste zenbaitetan, ordea, aurreratu ezinik edo atzeranzko zantzuekin gabiltza. Ez naiz honetan luzatuko, adibide asko jar baditzakegu ere, baina «auzia zertan den» jakin nahi duenak hortxe ditu *BAT Soziolinguistika aldizkariaren* 99. eta 100. aleak *Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011)*, Mikel Zalbideren «Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak» analisi bikainarekin edo *Berriako* kazetari Garikoitz Goikoetxearen *Euskara irabazteko bidean* liburua.

Fase-aldaketa honetan, bada, euskalgintza zuzenean ukitzen duen beste fenomeno bat: euskalgintzaren erakunde nagusietako belaunaldi-aldaketa eta erakunde hauen egokitzapena egoera soziolinguistiko berrira. Gaur egun ezagutzen ditugun euskalgintzako erakunde gehienak 70eko hamarkadan sortu ziren eta erakunde publikoak 80koan. UEU 1973. urtean sortu zen eta EHU 1980an. Euskal Herrian Euskaraz 1979an. EAEko Euskararen Normalizazioaren Legea 1982. urtean onartu zen. EITB ere urte berean sortu zen. Nafarroako Euskararen Foru Legea, berriz, 1986an. Gau-eskolak 1976. urtean koordinatu ziren AEK gisa eta HABE 1983an jaio zen. Gipuzkoako Ikastolen Federazioa eta Seaska 1969an eta Ikastolen Federazioa 1988an. 80ko hamarkadan sortuak dira udaletako Euskara Zerbitzu eta Euskara Elkarte asko. Eta *Egunkariak*, berriz, 1990. urtean kaleratu zuen bere lehen alea.

Erakunde hauetako gehienek, beraz, 35-40 bat urte dituzte, eta berauek sortu eta martxan jarri zituen belaunaldia laster erretiratuko da. Belaunaldi-aldaketa gertatzen ari da. Bestalde, orduko eta oraingo egoera soziolinguistikoak eta testuinguru soziopolitikoak guztiz desberdinak dira, baina, kasu gehienetan, aldaketak eta egokitzapenak izan badira ere, erakunde horiek gehiago erantzuten diote duela 3 hamarkadetako egoerari, gaur egungoari baino. Esan genezake erakunde horiek guztiek beren lehen bizi-ziklo luzea osatzen ari direla urteotan. Inertziak astintzeko unea da, jauzi kuantitatiboak eta kualitatiboak emateko beharra eta aukera dugulako. Baina horrek eskatzen du euskalgintzaren gaur egungo egoeraz eta egituraketaz ere hausnartzea, eta behar diren egokitzapenak eta moldaketak egitea.

Niretzat gertukoa den adibide bat erabiltzearen; EITB sortu zenean, esate baterako, mundu guztiak garbi zeukan telebista hark bi hizkuntzetan funtzionatuko zuela eta orduko Kulturako sailburu Ramon Labaieni zor diogu euskararentzat kate bat blindatu izana eta ez kate elebidunaren bidea hartu izana. Eredu hark garaiko egoerari eta arriskuei erantzun zien, baina 35 pasatu dira, egoera soziolinguistikoa oso bestelakoa da eta ezinbestekoa da eredu hori errealitate berri honetara egokitzea; besteak beste, ETB2k euskararen normalizazio-prozesuan bete behar duen papera berrikusiz eta, bertan, euskarari ikusgarritasun eta presentzia gehiago emanaz.

Baina orain hurbil gaitezen hizkuntzalaritzara eta unibertsitate-eremura. Guztiz kanpotik begiratuta, eta aldaketa ugari egon dela aitortuta ere, ausartuko naiz esatera,

badela aspalditik datorren hutsune bat, oraindik ere modu egokian bete ez dena: soziolinguistika, hizkuntza-politika eta hizkuntza-planifikazioa beren beregi landuko dituen erakunde zientifiko baten falta, alegia.

Gogoratzen naiz Donostiako EUTGn Euskal Filologia ikasten hasi eta gutxira bilera bat izan genuela dekanotzarekin bi gairen inguruan: euskararen presentzia handitzea karreran (ikasgai gehienak erdaraz ziren) eta gure etorkizun profesionalarekin zerikusi gehiago izan zezaketen ikasgaiak sartzea karreran (haur nahiz helduentzako euskararen irakaskuntza, itzulpengintza, euskararen normalizazioa, etab.). Irakasleria omen zen orduan arazo nagusia. Orduz geroztik, euskararen presentzia asko hobetu eta indartu da Euskal Herriko unibertsitate gehienetan eta Euskal Ikasketak, Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazioa ere ikas daitezke, beste gai askoren artean. Baina oraindik ere ez daukagu hizkuntza-plangintzarako teknikariak prestatzen dituen karrerarik. Neronek, lanbideaz galdetu izan didatenean, askotan «soziolinguista» erantzun izan dut, azalpen hau emanez: horixe da nagusiki egiten dudana eta karrera hori existitzen ez denez, esan dezaket banaizela.

Parentesi bat zabalduko dut orain, gaiaz aldatzeko, nahiz eta amaieran ikusiko duzuen bezala, aipatzen ari naizen hutsune honekin lotuko dudana. Azken urteotan erabili izan ditudan argudioen artean, indartsuenetako bat euskararen tamainari dagokiona dela esango nuke. EMUNeko adiskideek zerabilten adibide batean oinarrituta *Tribuaren Berbak* saioaren lehen atalean kale-inkesta bat burutu genuen, jendeari galdetuz ea euskarak zein leku duen munduko 7.000 hizkuntzen artean. Horretarako, 0tik 10erako eskala bat hartu eta hiztun kopuruaren arabera, euskara zein zenbakitan kokatuko luketen galdetzen genion jendeari (inkesta azken programan eta erdarazko atal batean ere errepikatu genuen, eta azken boladan emandako ia hitzaldi guztietan erabili dut). Jasotako erantzun gehienek euskara 0-4 artean kokatu izan dute eta oso-oso bakanak izan dira 6tik gorakoak. Eta jendeari esaten diozunean euskara 9tik gora dagoela, erreakzio nagusia ez sinestearena da. Ez dut esajeratuko esaten badut, programa horrek aldatu egin duela ikusi dutenen euskararekiko ikuspegia. Askok aipatu digute atala ikusi —edo hitzaldi/ikastaroetan ideia ezagutu— eta «harrotasuna» sentitu dutela edo «autoestimurako» lagungarria izan zaiela oso.

Baina zergatik ikusten dugu geure burua horren txikia? Batez ere hiru arrazoirengatik: historian zehar hizkuntza hegemonikoetatik besterik ez dugulako entzun, inguruan hizkuntza erraldoiak ditugulako eta euskararen erabilera-portzentajeak txikiak direlako. Hori argitu ondoren, munduko hizkuntzak hainbat multzotan sailkatu ohi ditut: beti gure aurretik ibiliko diren hizkuntza erraldoiak (14 bat), ia etapa guztietan —baina ez guztietan— helmugara gu baino lehenago iristen diren estatu-hizkuntzak (Wikipediako artikuluen rankingean esate baterako, euskara zenbait estatu-hizkuntza baino postu hobean dago), katalana (kasu berezia, hiztun kopuruarengatik eta alboko erdarekiko distantzia linguistiko txikiarengatik),

eta ondoren nolabaiteko errekonozimendu legala, hiztun kopuru ondrosoa eta babes sozial zabal samarra duten hizkuntza gutxituak. Azken tropel horren buruan euskara dago. Euskara da une honetan, bere hizkuntzaren alde borrokan ari diren munduko hizkuntza-komunitate askoren erreferente nagusia edo nagusietako bat. Eta horrek erantzukizun erantsia dakarkigu: euskararen normalizazioa ez da garrantzitsua bakarrik guretzat, gure prozesuaren arrakasta hil ala bizikoa baita, munduko beste hizkuntza askorentzat ere. Hala jaso izan dugu Garabideren eskutik etorri ohi diren herri indigenetako ordezkarien, edo Europako hizkuntza gutxituetako ordezkarien ahotik. Brexitak hizkuntza gutxituen geroan izan dezakeen eraginari buruzko artikulu bat txiokatu nuen apirilaren 12an eta halaxe erantzun zidan Inma Muñoa adiskideak: «*Joan den astean Galesen izan nintzen. Urduritasuna, tristura ikusi nuen, begi bustiak. Eta mezu esplizitu bat: ez gaitazue bakarrik utzi*».

Baina UEUn gaudenez eta unibertsitatera bultzatuz, euskararen normalizazio-prozesuak eta nazioarteko hizkuntza-biziberritzeen saiakerek beharko luketen «gune zientifiko diziplinartekoa»ren hutsunea nabarmenduko dut berriro. Ikasgai solteak ditugu hainbat karreratan eta fakultate desberdinetan lantzen da hizkuntzaren gaia, baina hori ez da aski. Gai konplexu eta zabal honek gune multidiziplinarra behar du, hizkuntzalaritza, soziologia, psikologia, antropologia, ekonomia eta enpresa, pedagogia, zuzenbidea, marketina, etab. barne hartu eta saretuko dituen.

Soziolinguistikari egin zaizkion ekarpenik garrantzitsuenetakoak, unibertsitate-mundutik kanpotik egin zaizkio Euskal Herrian. Adibidez, arnas luzeko ikuspegiari dagokionez, «Txepetx»en teoria edo Mikel Zalbideren ekarpen teorikoak; eta argitalpenen esparruan, *BAT Soziolinguistika aldizkaria* bera euskalgintza sozialetik sortu zen 1990. urtean, EKBren eskutik. Eta esparru honetan dugun erreferentziazko erakunderik garrantzitsuenean, Soziolinguistika Klusterrean, unibertsitateek parte badute ere, ezin daiteke unibertsitate-munduko erakundetzat hartu.

Egia da, beti izan direla gaia jorratu duten irakasleak eta azken urteotan, irakasle eta ikertzaile euskaldun eta euskaltzale askori esker unibertsitateko ikerkuntzatik hizkuntzalaritza praktikora edo hizkuntza-plangintzara zegoen eten ia erabatekoa asko leundu dela eta hainbat egitasmo interesgarri sortu dela

«Berrikasi eta berrikusi» txostenean, halaxe genioen, besteak beste «autoritate edo erreferentzia zientifikoa»ri buruz:

Behar da denek onartutako autoritate zientifiko bat politikak eta plangintzak eraginkorrago bihurtzeko tresna lagungarria izango dena. Euskaltzaindia corpusaren arloan den bezala, baina estatusaren arloan. Hiru erpin izango dituen lidergo partekatu eta adostua behar dugu beraz: alderdi politikoez eta administrazioez osatzen dutena, lehena; gizarte-eragileek eta euskalgintzak oro har osatutakoa, bigarrena; eta lehen bien lagungarri eta erreferentzia izango den autoritate zientifikoa, hirugarrena.

Autoritate zientifiko hau egiteke eta osatzeke dago, eta «autoritate» hori gainera, lortu eta landu egin beharko da, beste bi erpinetako eragileen onarpenaren bidez. Horregatik,

garrantzi berezia eman behar zaio, gure ustez, erakunde publikoen, unibertsitateen, Euskaltzaindiaren, Eusko Ikaskuntzaren, eragile zientifikoaren eta gizarte-eragileen artean bideratu beharko litzatekeen bere eraikitze-prozesuari.

Erreferentzia zientifiko honen beharra eta aldarria ez da oraingoa, baina badirudi gero eta oihartzun zabalagoa hartzen ari dela. Hona *BAT* aldizkariaren 99. eta 100. aleetan aurkitutako aipamenak:

- Mikel Zalbidek lehen aipatutako artikulua azken atala eskaintzen dio gaiari: «Beharrezko baliabidea: ahuldutako hizkuntza biziberritzeko gogoeta-etxea». Bertan honela dio: «Eguneroko premia praktiko larrien sorgin-gurpiletik ihes eginaz, indarberritze-lanari buruzko irizpide nagusien gaineko gogoeta-lan jarraitua antolatu, bideratu, zabaldu eta, ebaluazio-emaitzen argitan, eguneratuko duen gunea behar da horretarako (...) Xede nagusi edo bakarra ahuldutako hizkuntza(k) indarberritzeko bideak aztertzea duen instantziarik ez dago gurean».
- Iñaki Martinez de Lunak honela amaitzen du bere artikulua: «Aurrera begirako hizkuntza-politika eta -plani modurik efizienteenean ekin ahal izateko, ezinbestekoa da ikerkuntza soziolinguistikoko sakonetik abiatzea; egun gure ikerkuntza den baino sakonago, hain zuzen».
- Eta Jone Miren Hernandezek behar hau azaleratzen du: «Diskurtso berritzailearekin batera bestelako berrikuntzak ere gertatu beharko lirateke: diagnostiko berriak, zabalagoak eta konplexuagoak behar dira; diziplinen artekotasunetik sortutako diagnostikoak (...) Nago azkeneko hiru-lau hamarkadetan euskararen egoera guztiz eraldatu dela, bere testuinguruak egin duen moduan. Horrek eraldaketa epistemologikoak, teorikoak eta metodologikoak eskatzen ditu».

Ekainaren 24an Garikoitz Goikoetxeak *Berrian* Miren Dobaran sailburuordeari egindako elkarrizketaren arabera, badirudi alor honetan ere badirela mugimenduak. Pentsatzen dut horrelako egitura bat sortzea konplexua izango dela, ikuspegi eta interes asko egon daitezkeela tartean. Ez dut proposamen zehatzik, baina aktibismotik eta plangintza soziolinguistikokoaren ikuspegitik, unibertsitatea bete-betean harrapatzen duen premia hau nabarmendu nahi nuen sarrera honetan.

Amaitzeko, berriro nabarmenduko dut, bai gizarte mailan, bai politikoki eta bai nazio osoaren ikuspegitik, gure hizkuntza-komunitateak inoizko egokierarik aldekoena duela hizkuntzaren normalizazio-prozesuari bultzada berri eta indartsu bat emateko. Aukera historiko hau ezin dugu alferrik galdu. Garai hauek erabakigarriak izan daitezke fase-aldaketa honetan bidegurutzetik norabide egokian eta indartsu ateratzeko: palanka egokiak modu eraginkorrean aktibatuta, elkarlanean sakonduz,

herritarrak ahaldunduz eta aktibatuz, euskararen alde dagoen gizartearen gehiengoa indartuz, hizkuntza-politikak sendotuz, euskararen gaia agenda guztien erdigunera ekarriz, erakunde eta gizarte-eragile guztietan euskararen zeharkakotasuna landuz eta egin beharrekoak ongi aztertuta eta planifikatuta. Ea lortzen dugun!

Tolosan, 2017ko uztailaren 3an